

4 DBH_Plastika, Ikus eta Ikus Entzunezko Hezkuntza_PROGRAMAZIO LABURPENA

Irakaslea	Yanira Echavarri	Maila	4	Ikasturtea	21/22
-----------	------------------	-------	---	------------	-------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

[Kontingentzia Plana](#)

[Arreta ez-Presentzialaren Plana.](#)

2 orduko hautagaia da eta info 4 gelan emango dira eskolak.

Adierazpen Plastikoaren multzoan material eta teknika desberdinekin esperimentatzen du sorkuntza prozesuaren ikaskuntzarako. Helburua da ikasleei autonomia handiagoa ematea lan pertsonalak sortzeko, eta proiektu artistikoak, norberarenak nahiz taldekoak, egiteko jarraitu beharreko urratsak planifikatzen laguntzea.

Ikus-entzunezko mintzairaren ezaugarriak aztertzen dira, eta mintzaira horretaz baliatuz egiten da inguruan ditugun irudien azterketa kritikoa.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilerari ere garrantzia ematen zaio, irudiari aplikatuta.

Marrazketa Teknikoaren multzoan forma geometriko eta irudikapen sistema desberdinei buruzko ezagutza teoriko-praktikoak irakasten dira, eta ezagutza horiek problemak ebazteko eta diseinuak egiteko aplikatzen dira.

laugarren mailan, ikasleen heldutasuna eta eskuratutako ezagutzak aintzat hartuta, Diseinuaren Oinarriak izeneko multzoa gehitzen da, arlo desberdinetan diseinuaren oinarriak ezagutzeko aukera emateko, eta gainerako multzoetan eskuratutako ezagutzak ikuspegi praktikotik garatzeko.

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.		2		4			7			
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	1		3	4	5	6	7			
3) Gaitasun digitala.		2					7			
4) Ikasten ikastea	1	2			5	6				
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2		4			7			
6) Ekimena eta ekintzailtza.	1		3	4	5	6				
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2			5	6	7			

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Utzi dagokiona:

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

1.Multzoa: Arte sorkuntzako prozesu orokorrak.

2. Multzoa: Formen deskripzio objektiboa.

3. Multzoa: Arte Grafikoak eta diseinua

4. Multzoa: Irudia eta soinua

- **4. mailako proiektuaren barruan: koordinazio saioretan definituko den zeregin bat landuko da eta gainera hirugarren ebaluazioan Skolae-ko jarduera bat burutuko da: "Nire gorputza inbaditzen dutenean".**

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

DBH CURRICULUMA

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
14	1. eta 3. multzoak 1. Unitatea: Geometria laua: Oinarrizko eraikuntzak, irudi poligonalak, ukitzeak eta beren aplikazioak Diseinu Grafikoan. Geometria artean. Moduluak.	6	1. eta 2. multzoak 3. Unitatea: Sistema Diedrikoa. Bistak.	6	1., 2. eta 4. multzoak 6. Unitatea: Sistema isometrikoa Hirian funtzio bat betetzen duen eraikuntza baten irudikapena
6	- 2. Unitatea: Arte grafikoak eta diseinua. Balio funtzionalak eta estetikoak arte aplikatuetan: diseinuaren oinarriak. - Imagotipoa - Diseinuan (diseinu grafikoa, barne-diseinua) eta publizitatean erabiltzen diren ikus-hizkuntzen sintaxia Diseinuaren eta publizitatearen inguruko irudiak bereizi eta interpretatzea.	14	- 4. Unitatea: Normalizazioa: Akotazioa Sistema Diedrikoan - Eskala aplikazioa - Barne diseinua eta arkitektura 5. Unitatea: Perspektiba Konikoa eraikuntza baten diseinua perspektiba koniko zehiarran	12	- 7. Unitatea: Irudia eta soinua. Hizkuntza zinematografiko eta bideo-grafikoaren sintaxia. - Skolae jarduera
	Proiektuak: Irudi korporatibo modular bat eta imagotipo baten diseinua.		Proiektua: Eraikuntza baten diseinua, barruko diseinua, planoak. Eraikuntza beraren kanpoko diseinua perspektiba konikoan eta ingurua.		Proiektua: Ikus entzunezko proiektu bat egin Animazioa teknika landuz animazio bat sortuko da.

Ikasturteko jarduera gehienetan 4. mailako proiektuaren helburuak landuko dira, oraindik definitzeke dagoena, baina gaitzat: Hezkidetzak, feminismoa, genero-berdintasuna, indarkeria matxistaren prebentzioa... landuko dituenak.

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

- Hainbat metodologia erabiliko dugu egin beharren arabera. Kasu batzuetan ariketak zuzenean arbelean, ala proiektorea edota fotokopien bidez azalduko dizuegu, bakoitzak bere lana egin baino lehenago.
- Lanak banaka nahiz taldeka egiten dira, IK/KI egiturak erabiliz.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

Ebaluatzeko tresnak:

- 1) Ebaluazio bakoitzean egindako lan praktikoak.
- 2) Kontrolak.

Jarduera bakoitza hasi aurretik argi izan beharko duzue zein den bere helburua, nola egin eta zenbat denbora duzue bukatzeko eta nola ebaluatuko den. Irakasleak epe bat jarriko du emateko. Beranduago emateak notaren jaitsiera ekarriko luke. Atzerapenarekin entregatzeak puntu beten jaitsiera suposatuko du..

Jarduera gainditzeko moduan egina ez egotekotan ikasleak errepikatzeko aukera izanen du, epe mugatu batean.

Ikasgaia gainditzeko bidalitako jarduera guztiak aurkeztu behar dituzue.

Zuen jarrera kontuan hartuko dugu ebaluaketako kalifikazioan: erakutsiriko interesa, ahalegintze maila, talde lanetako parte-hartzea eta kooperatzeko gaitasuna, ikaskide eta irakaslearekiko errespetua, materiala zaintzea, elkar lana...

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA:

LAN PRAKTIKOAK %50 (edo %80 azterketa ez egitea erabakitzen bada)

KONTROLAK (bataz bestekoa egiteko 3 atera behar da) %30

JARRERA %20

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENKOAK

Borobiltzea:

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ebaluazioa gainditzeko:

Lanak: berregin akatsak zuzenduta eta epe baten buruan eman.

Azterketa: gainditu gabe baduzu, beste azterketa bat eginen duzu berreskuratzeko. Ebaluazio bat baino gehiago gainditu gabe izanez gero ohiko deialdiko azterketa globala egingo duzu.

Ohiko deialdian aurkeztu ahal izateko ikasturtean zehar egin gabe, edota gainditu gabe dauden lan guztiak errepikatu eta aurkeztu behar dira. **Azterketaren balioa %50 izanen da eta beste %50 lanen bataz bestekoa.**

Ez Ohiko deialdian, ikasleren batek hiru ebaluazioen batezbestekoa ez badu 5 edo gehiago lortzen, suspendituriko ebaluazioak berreskuratu beharko ditu. Berreskurapena suspentsoaren arabera izanen da, pertsonalizatua. Behin berreskuratuta, beheko taulan agertzen den moduan, lortutako nota berri honekin (hauekin) hiru ebaluazioen noten batezbestekoa eginez, kalkulatu da azken nota. Lortutako kalifikazioa

Berreskurapenaren emaitza	Azken emaitza
8.5 - 10	7
7 - 8.5	6
5 - 7	5

0 - 5	Berreskurapenaren emaitza borobildua (4 eta 5 artean, 4)	
KANPOKO EBALUAZIOA		